

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARAMAIOKO UDALA

Aramaioko Udaleko idazkaritza-kontuhartzaitza lanpostua betetzea, gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordeta

Kontuan hartuta beharrezkoa izango dela idazkari-kontuhartzailearen lanpostua betetzea, titularrak ezin duelako lanpostua aldi baterako bete.

Ikusirik gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoari buruzko martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta hurrengoak.

Ebatzi dut

Lehena. Prozedura hastea Arabako Foru Aldundiari proposatzeko gaikuntza nazionala duen toki-administrazioko funtzionarioaren izendapena, Aramaioko Udaleko idazkaritza-Kontuhartzaitza lanpostua betetzeko, titularra itzuli arte, aipatutako 128/2018 Errege Dekretuaren 49., 50. eta 51. artikuluetan aurreikusitako moduren batean eta adierazitako lehentasunaren arabera.

Bigarrena. Iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, 5 egun balioduneko epea irekitzea bete beharreko lanposturako hautagaiek parte hartzeko eta eskabideak aurkezteko, eranskin gisa doan ereduaren arabera eta adierazitako dokumentazioa erantsita.

Gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioak izendatuko dira, eta lehentasuna izango dute lanpostuaren azpieskala bereko hautagaiek.

Egoera bakoitzean, lehentasuna izango dute, eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik Eusko Jaurlaritzak argitaratutako merezimenduen azken baremo orokorraren arabera.

Idazkia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako edozein modutan aurkeztu ahal izango da.

Hirugarrena. Izangaien lehentasun-hurrenkera ezarri ondoren, eta Aramaioko Udalak hurrenkera horren araberrako izendapenaren aldeko txostena eman ondoren, hautagai bakoitzari eskatu beharko zaio, hamar egun balioduneko epean, destinatuta dauden toki-erakundearen aldeko txostena aurkez dezala, aipatutako artikuluetan adierazitakoaren arabera, bai eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako txostenak ere.

Laugarrena. Hautagairik aurkeztu ezean, gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52. eta 53. artikuluetan aurreikusitako prozedurarekin jarraitzea.

Bosgarrena. Ebazpen honen berri ematea Osoko Bilkurari, egiten duen hurrengo bilkuran.

Seigarrena. Lanpostuaren ezaugarriak:

- Izena: Idazkaritza. 3. Mota.
- Lan-harremana: gaikuntza nazionaleko funtzionarioa.
- Eskala: gaikuntza nazionala.
- Azpieskala: Idazkaritza-Kontuhartzaitza.
- Taldea: A1.
- Lanpostu-mailako osagarria: 29.

- Berriazko osagarria: 26.112,80 euro.
- Hizkuntza-eskakizuna: 4. Derrigortasun data: 1994ko abenduaren 31.

Aramaion, 2026ko ekainaren 16an

Alkaltea

ASIER AGIRRE MUGARTZA

ERANSKINA

..... jauna/andreakNANaren titularra, jakinarazpenetarako helbidea:....., herria:....., telefono-zenbakia:....., gaikuntza nazionalako Toki Administrazioako funtzionarioa,..... azpieskalakoa, eta, gaur egun,lanpostua betetzen duena tokiko erakundearen, jaunak/andreak egindako izendapenagatik,jabetza-datarekin (edo jarduneko zerbitzura itzultzeko egoeran egonik - lankidetzaren lanpostuak kentzea - izendapen askeko lanpostuetan uztea).

Azaltzen dut:

Jakin dudala Aramaioko Udaleko idazkaritza-kontuhartzaitza lanpostua hutsik egongo dela datozen egunetan, eta behin-behineko izendapenaren, zerbitzu-eginkizunen edo metaketaren bidez bete daitekeela.

Lanpostuari dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak izanik, indarrean dagoen legediaren arabera eta dagozkion izapideak bete ondoren, honako hau

Eskatzen dut:

Aramaioko Udaleko idazkaritza-kontuhartzaitza lanpostua behin-behineko izendapenaren, zerbitzu-eginkizunen edo metaketaren bidez betetzeko prozeduran parte hartzea (ezabatu dagokiona).

Honekin batera doa:

* NANaren fotokopia.

* Gaikuntza nazionalarekin toki-administrazioako funtzionarioa naizela egiaztatzen duen agiria.

* Lanpostua metatuta eskatzen bada, erantzukizunpeko adierazpena, adierazteko ez duela jada izendapen metaturik betetzen.

.....n, 20.....koren(e)an.

Sinadura: